

### **13. TRESNA. HELBURUAK LEHENETSIZ ETA AUKERATUZ**

Diagnostikoa egin ondoren, indar eta ahulezia batzuk detektatu ditugu. Ondoren, indar gisa sendotu behar diren edota detektatutako ahulezia gisa hobetu beharko lirakekeen alderdiak hautatu ditugu. Guztiak helburu gisa bildu ditugu berriz, eta gure ustez **bideragarrienak eta errealistenak** direnak hautatu beharko ditugu.

Helburuak lehenestean besteak beste hezkidetzaren zortzi zutabeak kontuan hartzea aholkatzen dugu:

- Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean
- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista
- Emakumeen jakintza eta emakumeen ekarpen soziala eta historikoa txertatzea
- Gatazken eraldaketa baketsua hezkidetzako proiektuen bidez
- Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa
- Ikastetxeko espazioak, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak
- Hezkuntza afektibo eta sexuala berdintasunean
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta horren inguruko jarduna

Gainera, dagoeneko aztertu ditugun beste alderdi batzuk hartu beharko dira kontuan, hala nola:

- Ikastetxearen antolaketa eta kudeaketa
- Ikasgelaren antolaketa eta kudeaketa eta irakaskuntza-estiloa
- Parte-hartzea eta ordezkartza

Ez da beharrezkoa gai-multzo horiek guztiak aldi bakar batean lantzea. Aitzitik, hainbat ikasturtetan landu daitezke, elkarren segidan.

#### **TALDE NOMINALAREN TEKNIKA**

Pertsona bakoitzak hierarkizatu egin behar ditu helburu horiek, eta, horretarako, puntu 1 emango dio bere ustez garrantzirik txikiena duenari, 2 puntu garrantzi txikiena duen bigarrenari, eta horrela bere ustez garrantzitsuenera iritsi arte. Horrela, beraz, 10 helburu izanez gero, garrantzitsuenari 10 puntu emango zaizkio, eta garrantzirik txikiena duenari, berriz, puntu 1.

Parte-hartzaile guztien erantzunak jasoko dira. Puntuaziorik handiena lortu duten helburuak planifikatuko dira.

## HELBURUEN LEHENESPENA

HELBURUEN ZERRENDA	PUNTUAZIOA
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	
6.	
7.	
8.	
9.	
10.	
<b>HELBURUAK, GUZTIRA = GEHIENEO PUNTUAZIOA, GUZTIRA</b>	

Botoak jaso ondoren, zenbaketa egingo da eta helburu kopuru jakin bat lehenetsiko da. Helburu horiek hurrengo ikasturtean landuko dira, eta Urteko Planean islatu beharko dira. Halaber, kontuan hartu beharko da helburu horietako batzuk Bizikidetza Planean, Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Tutoretza Planean jaso behar direla.